

## **BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA**

17/1998 LEGEak, ekainaren 25ekoak, Boluntarioei Buruzkoak, 10. artikuluan arautzen du Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra.

Legealdi honetan (2017-2020), Errolda honen kudeaketa Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak egingo du.

Izena eman nahi duten erakundeek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute bai Zuzenean hiritarren arreta-zerbitzuan, bai postaz.

### **BOLUNTARIOTZAKO ERROLDAN INSKRIBATU AHAL IZATEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:**

(169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa; EHAA, 2000-9-29)

1. Erroldan izena emateko eskaera, presidenteak edo legezko ordezkariak eduki dezakeen beste pertsona batek sinatuta.
2. Eskaera sinatu duen pertsona elkarteko presidentea edo legezko ordezkariak eduki dezakeen pertsona dela egiaztatzen duen dokumentua.
3. Irailaren 1eko 169/2000 Dekretuaren I. eranskina, beteta.  
(Ikusi I. Eranskin)
4. Dagokion erroldan inskribatuta egotea (Errolda horretan inskribatuta egotearen ziurtagiria).
5. Boluntariotzaren barne-araudiaren kopia, gutxienez hauek jasoko dituenak:
  - Onartzeko irizpideak
  - Baztertzeko irizpideak
  - Boluntarioen eskubideak
  - Boluntarioen eginkizunak(Ikusi II. Eranskin)
6. Aseguru-polizak:
  - Eragindako kalteak – Erantzukizun zibila (> = 300.506,05 €)
  - Boluntarioek izan dezaketenen estaldura, istripu, heriotza, gaixotasun edo ezgaitasun egoerengatik.Polizak ez ezik, hauek ere bidali behar dira:
  - Urteko aseguru biak ordaindu izanaren ziurtagiria.
  - Aseguratuen zerrenda.
7. Elkarrearen estatutuen kopia.

8. Bere proiektuetan adingabeekin ohiko lana egiten duten profesional eta/edo boluntario guztiek sexu-deliturik egin ez dutela egiaztatzen duen adierazpena.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko [1/1996 Lege Organikoa](#) betez ([26/2015 Legeak](#) eta boluntariotzari buruzko [45/2015 Legeak](#) aldatu dutena), adingabeekin ohiko lana egiten duten profesional eta/edo boluntario guztiek ezinbestean aurkeztu behar dute, lan egiten edo laguntzen duten entitateetan bertan, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria, sexu-deliturik egin ez dutela egiaztatzen duena. Beraz, zentsuan izena eman nahi duten entitate guztiek, aurreko dokumentu horietaz gain, entitateak ziurtagiri egokiak dituela frogatzen duen adierazpen bat ere aurkeztu beharko dute, presidentek edo legezko ordezkariak sinatuta.